

## IKASLE BERRIA

PERTSONAIK: (Pertsonaiak gehitzea edo gutxitzea erreza da)

. Kontalaria	. Ikaslea 2	. Ikaslea 7	. Lapurra 1
. Anttoni	. Ikaslea 3	. Ikaslea 8	. Lapurra 2
. Irakaslea 1	. Ikaslea 4	. Ikaslea 9	. Polizia
. Irakaslea 2	. Ikaslea 5	. Ikaslea 10	
. Ikaslea 1	. Ikaslea 6	. Ikaslea 11	

Kontalaria: Kontatuko dizuegun istorio hau orain ez asko gertatu zen. Anttoni izeneko neskatila bat bere familiarekin herri txiki batera joan zen bizitzera. Anttoni egun hartan oso urduri zegoen. Zergatik? Hura zelako ikastola berrira zihoan lehengo eguna. Irakasle berriak, lagun berriak, ikastola berria... Nolakoak ote ziren?

Irakaslea 1: Gaur ikasle berri bat daukagu ikastolan, Anttoni du izena eta harrera ona egingo diozuela espero dut.

Ikaslea 1: *(Beste bati belarrira hitz egiteen dio).* Zertarako etorri behar du ikastolara kokolo horrek?

Ikaslea 2: Bai hobe legoke bere etxean.

Ikaslea 1: Ba ikusiko du. Esan besteei ahalik eta gehien izorratu behar dugula. *(Batak besteari berria kus-kusean pasatzen dio).*

Irakaslea 1: Beno, orain matematikarekin hasiko gara. Arbelean problema batzuk idatziko ditut eta zuek koadernoan kopiatu... *(Umeei bizkarra eman ez arbelean idazten hasten da. Orduan norbaitek paperezko pilota bat egin eta irakasleari jaurtitzen dio).*  
Baina, baina... nork jaurti du paperezko pilota hau?

Ikasleak: *(Anttoni seinalatuz)* Anttoni izan da! Anttoni izan da!

Anttoni: Ni ez naiz izan.

Irakaslea 1: Anttoni, horrelakorik ez da egiten. Barkatu egingo dizut baina hurrengoan zigortu egingo zaitut. *(buelta ematen du eta arbelean idazten jarraitzen du. Beste ikasle bat puztuki bat puzten hasten da eta jostorratz batekin eztanda egiten du).*

Irakaslea 1: *(haserre)* Baina baina, zer gertatzen da hemen?

Ikasleak: Anttoni izan da! Anttoni izan da!

Anttoni: Ez, ez ni ez naiz izan.

Ikasleak: Anttoni izan da! Anttoni izan da!

Irakaslea: *(haserre eginez)* Anttoni!

Kontalaria: Ikusten duzueenez, gelako kideek ez zioten Anttoniri harrera onik egin. Hurrengo egunean, gauzek ez zuten bere onera egin.

Ikaslea 3: *(Beste ikasle bati hitz egiten dio).* Irakasleari aulkian txintxeta bat jarriko diot.

Ikaslea 4: Bai, eta errua Anttoniri botako diogu

*(Txintxeta aulki batean ipintzen dute. Ondoren irakaslea sartzen da).*

Irakaslea 2: Gaur animaliei buruzko kontrola egingo dugu. Orri honetan dauden galderak erantzun behar dituzue. *(Orriak banatzen hasten da)* Hasi egiten *(aulkian eseri egiten da, baina txintxetaren ziztada sentitzean, bat batean altxatu eta eskuak ipurdira eramaten ditu).* Ai ai, ai. Zer gertatu da? Ai, ai, ai. *(txintxeta eskuratzean...)* Nork jarri du txintxeta hau nire aulkian?

- Ikasleak: Anttoni izan da! Anttoni izan da!
- Anttoni: Ez, ni ez naiz izan.
- Ikasleak: Anttoni izan da! Anttoni izan da!
- Irakaslea: *(Haserre eginez)* Anttoni! Gero zurekin hitz egingo dut. Orain jarraitu guztiok kontrolarekin. Bukatzen duzuenean nire mahai gainean utzi (Irakaslea gelatik irten egiten da).
- Ikaslea 5: *(Beste ikasle bati belarrira hitz egiten dio)* Badakit zer egingo diogun oraingoan.
- Ikaslea 6: Zer?
- Ikaslea 5: Anttonik kontrola irakaslearen mahai gainean utzi eta gero atzetik ni joango naiz. Egin duen kontrola zakarrontzira bota, eta honen ordeztu bere izena duen beste orri bat utziko dut.
- Ikaslea 6: Ederki Ederki.
- (Denbora pasatu eta gero, Anttonik kontrola bukatzen du eta irakaslearen mahai gainean uzten du. Ikaslea 5ek esandakoa betetzen du: Anttoniren kontrolarekin pilota bat egin eta zakarrontzira botatzen du. Horren ordeztu beste orri bat uzten du).*
- Kontalaria: Begira zer gertatu zen hurrengo egunean.
- Irakaslea 2: Atzoko kontrola zuzendu dut, eta banatuko dizkizuet *(Banatzen hasten da)*.
- Anttoni: *(Bere kontrola jaso eta gero)* Zergatik jarri didazu "Oso Gaizki"? Nik kontrola ongi egin nuen.
- Irakaslea 2: Ondo??? Hori esateko aurpegi galanta behar da gero. Ekarki kontrola. Irakurriko dut idatzi zenuena.

Zer jaten tigreek? Hauxe zure erantzuna: Tigreek batez ere Donutsak eta Bollycaoak jaten dituzte. Palomitak gusanitoak eta gominolak ere oso gustukoak dituzte.

Hurrengo galdera. Nolako ohiturak dituzte animalia basatiek? Zure erantzuna: Asko gustatzen zaie "Game Boy"arekin jolastea. "Goenkale" ikusteko ere ohitura handia dute: Baina gehien gustatzen zaiena Harry Potterren liburuak irakurtzea da.

Anttoni: Nik ez dut hori idatzi, hori ez da nire kontrola.

Irakaslea 2: Anttoni ez esan gezurrik. Hementxe dago zure izena. Orain jolas ordua da. Irten guztiok jolas tokira.

*(Patioan gelakide guztiak soka saltoan dabiltza jolasten. Bi ikasle soka ematen, ikasle bat saltoka eta besteak ilaran kantuan).*

Ikasleak: Aita, ama zenbat urtekin ezkonduko naiz? Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi...

Anttoni: Jolastu al dut?

Ikaslea 7: Ez, ezin duzu jolastu.

Anttoni: Zergatik ez?

Ikaslea 7: Nik Esaten dudalako.

Anttoni: Baina soka ez da zurea, gelakoa baizik. Eta gelako gauzak guztiok jolasteko dira.

Ikaslea7: Ez dugu zurekin jolastu nahi. Alde hemendik!  
*(Bultzatu egiten du eta borrokan hasten dira).*

Irakaslea 2: Zer gertatzen da hemen?

Ikasleak: Anttoni hasi da! Anttoni hasi da!

Anttoni: Ez, hori ez da egia.

Irakaslea 2: Anttoni zigortuta zaude!

Kontalaria: Anttoni guztiaren erruduntzat hartzen zuten, eta horregatik oso triste zegoen.  
Gabonak pasatu eta ikastolako lehenengo egunean, irakasleak Olentzerok ekarritako jostailu bat ekarri eta jolasten utziko ziela esan zien.

Ikaslea 8: Begira zer ekarri didan Olentzerok: Harry Potterren jokia eta liburua. Oso politak dira.

Ikaslea 9: Ba niri kotxe teledirigitu hau. Edozein aldapa igo dezake eta txokatuz gero ere ez da gelditzen.

Anttoni: Niri irrati kasete hau ekarri dit, mikrofono eta guzti. Hitz egiten duzunean altabozetatik entzuten da, eta gainera soinu ezberdinak egiten ditu: trenarena, itsasontziarena, anbulantziarena...

Ikaslea 8: Hori tontakeria.

Ikaslea 9: Bai, horrek ez du ezertarako balio.

Ikaslea 8: Goazen gelakoekin jolastera, eta zu Anttoni ez etorri.

*(Ikasle guztiak beraien jostailuekin gela erdian jolasean daude. Anttoni ordea, inork ikusten ez duen izkina batean, bere irrati kazetarekin triste triste esertzen da.*

*Jolasean ari direla bat batean lapurrak sartzen dira ikastolara).*

Lapurra 1: Ez dadila inor mugitu! Hau lapurreta bat da!

Lapurra 2: Lapurrak gara! Altxa guztiok eskuak eta zaudeten tokitik ez mugitu!

*(Lapurrak jostailu guztiak poltsa handi baten sartzen hasten dira).*

- Kontalaria: Ikastolako umeak ikaraturik zeuden. Baina lapurrak ez ziren konturatu izkina baten Anttoni ezkutatu egin zela. Lapurtzen ari ziren bitartean, Anttonik ideia bat izan zuen.
- Anttoni: Badakit!!! Orain ikusiko dute lapur horiek. (*Irrati kasetean zinta bat sartu eta martxan ipintzen du. Bat batean poliziaren sirena irrati kazetaren altabozetatik entzuten hasten da. Hau entzutean lapurrak zur eta lur gelditzen dira*).
- Anttoni: (*Irrati kaseteko mikrofonotik hitz egiten du*)  
Poliziak hitz egiten du. Inguraturik zaudete eta ez duzue irtenbiderik. Utzi lurrean pistolak eta altxa eskuak!  
  
(*Lapurrek, beldurturik, agindutakoa betetzen dute. Orduan Anttoni gordeleketatik atera eta lurrean utzitako pistolak hartzen ditu*).
- Ikaslea 10: Eta polizia non dago?
- Anttoni: Ez dago poliziarik, nik prestatutako tranpa bat izan da. Irrati kazeta eta mikrofonoarekin polizia hemen zegoela sinistu arazi diet. Benetako polizia bidean dator.
- Ikaslea 11: Anttoni, zuregatik izan ez balitz orain ez genuke jostailurik izango.
- Ikaslea 10: Eskerrik asko Anttoni. Ideia bikaina izan duzu. Orain arte berria zinela oso gaizki portatu izan gara zurekin. Barkamena eskatzen dizut.
- Ikasleak: Guk ere, barkamena eskatu nahi dizugu.
- Anttoni: Ongi da, barkatuko dizuet. Baina aurrerantzean ez duzue inor baztertu behar eta ongi portatuko zarete ondokoarekin. Konforme?

Ikasleak: Konforme.

Ikaslea 11: Begira, hemen dator polizia.

Polizia: Hauek dira lapurrak? Segi kartzelara.

Kontalaria: Harrezkero gela hartako neska mutiko haiek oso ondo konpondu izan ziren eta elkarri laguntzen zioten.

Egilea: Iñaki Aldai  
Karmelo Ikastola